

Tili7111

Gemma
Agirregomezkorta

aEHIGARRI
SEREZIA
EZKONTZAK

... KISVITIK

Urruzunoko
babes ofizialeko
etxebizitzak

KIROLA

Egoitz Mora
Espainiako Judo
Txapelketan eta
Ohorezko Ligako
jubenilen igoera


KULTURA

Trinitate jaiak

BARREN

1997ko maiatzaren 30a
V. urtea 196. zkia.

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



Antimilitarismoaren astea

"Militarren andik defenditzeko modua euren antzik ez izatea da" Marco Aurelio

SALEGI



Jantoki berrituak

50, 100, 200 eta 250 pertsonarentzako jantokiak

Menu pertsonalizatuak

Koktel eta argazkietarako jardin aproposa

Parking-a



Bizitzeko gogoaz blai!



GEMMA
AGIRREGOMEZKORTA

Gaurko artikulu honetan ez nuen nire gauzez hitzegiteko asmorik, baina duela pare bat aste andra batek esandakoak nahiko kezkatuta utzi ninduen eta hura burutik ezin kendurik nabil.

Ni baino gazteagoa den andra honen seme bat, hezurretako gaixotasun bat azaldu zaiolako, makuhtak erabiltzen hasi da eta bere seme hori hobeto dagoela iruditzen zaidala esan nionean, baietz erantzun zidan eta jarraian, honako hau bota zidan: "semea gurgildun aulkian ikusi baino, nahiago dut Olason ikusi".

Egia esanda, hitzik gabe geratu nintzen eta hori dela eta, artikulu honen bidez, gurgildun aulkiari buruz daukadan eskarmentu pertsonala kontatuko dizuet.

Hamazazpi urte nituela, Distrofia Muskularra diagnostikatu zidaten, baita garbi esan ere, zer motako gaixotasuna zen Distrofia, hau da, gaitz progresibo honekin, pixkanaka indarririk gabe geldituko nintzela eta zorritzarez, gurgildun aulkia erabili beharko nuela.

Berri txar hau jaso ondoren, gogoan dut gurgildun aulki bat ikusiz gero nola sentitzen nintzen. Aulki hori etsai bat bezala ikusten nuen. Baina gaixotasunak bere prozesua jarraitu zuen eta lehenengo hezurra puskatu zitzaidanean, hiru hilabeterako

igeltsoa ipini zidaten belaunean eta besotan indar gutxi daukadanez, ezin nituen makuluak erabili eta neure burua egoera hartan ikusirik, erabaki bat hartu beharra neukan. Hiru hilabeteok etxetik irten gabe galditu edo gurgildun aulkia erabili kale-ratzeko. Nire erabakia, noski, kaleratzearena izan zen.

Lehenengo egun hura bizitza guztirako izango dut gogoan. Alde batetik, jendeak begiratzen zidalako banuen lotsa piska bat, baina, beste aldetik, izugarritzko askatasuna sentitu nuen. Egun hartako ikasgaia, hauxe izan zen: GURPILDUN AULKIARI EZ ZAIO BELDURRIK IZAN BEHAR, gaixotasunari bai, noski, eta zorritzarez hau etorritzarez, bizitzeko gogoaz ez litzateke hor bukatu behar. Elbarriok borrokala-

ri handiak garelako erakusten dugu askotan, zuentzat normalak diren gauzak, guretzat batzuetan ezinezkoak dira.

Ni neu, bizi naizen gizarte honetan, ez naiz gutxiarekin konformatzen eta espetxean daukadan lagun batek esaten duen bezalaxe: "UTOPIA ERE LANDU EGIN BEHAR DA". Agian, horregatik aurrera jarraitzeko gogoaz dut, nahiz eta batzuek ezin ulertu, BIZITZEKO GOGOAZ BLAI!

"Elbarriok borrokalari handiak garelako erakusten dugu askotan, zuentzat normalak diren gauzak, guretzat batzuetan ezinezkoak dira."

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pruraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

LABURPENA: 2000 URTE ETA GERO, IENTFLAK LURRAIZEN AZALERA IRTENGO DIRA EUREN GARTZELARIA, AKABATZEKO AGINDUAREKIN...





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
 Tr **74 41 12**
Publizitatea:
 tr **74 37 04**
Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA	Elgoibarko Izarra
LAGUNTZAILEA	Elgoibarko Udala
ZUZENDARIA	Ainhoa Lodoso
ERREDAKZIO KONTSEILUA	Andres Alberdi, Rosa Agirregabiria, Mikel Kortabitarte
KAZETARIAK	Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro
PURLIZITATRA	Miren Moreno
MAKETATZAILEAK	Mikel Cornejo
AomposTnAzioA	Amaia Martin
	M. Angeles Ortuoste, Rata Alvarez
K OLABORATZAILEAK	trati Agirreazatdegi, Gemma Agirregomezkorta, Itziar Ajuria, Ion Arrieta, Agurtzane Arriola, Eduarne Bilbao, M. Angeles Exposito, Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza, Ane Guille, Jon Gurrutxaga, Antton triondo, KOKOE, Imanol Larrartaga, Javi LeOn, Jokin Martinez, Juan Luis Mugertza, Ongarri Zine Kluba, Pello Rubio, Ixidor Solupe, Leire Urkidi, Unai Villena eta Julen Zabaleta
BANAKETA ARDURADUNA	Imanol Larraffaga
INPRIMATEGIA	Gertu Koop. E.
TIRADA	4.000 ale
LEGE GORDAILUA	SS-1.038/92
ISSN	1133-021X

*Elgoibarko Udalak, Eusko
 Jaurlaritzaka Kultura
 Sailak eta Foru
 Aldundiak diruz
 lagundutako
 aldizkaria.*



*fundazioa
 fundaciOn*

1DANOBAT
 MAQUINAS HERRAMIENTA

bloke erariAllo dira Urruzunon

Joan den asteko BARREn ira-
 kurle batek Urruzunoko proiektu-
 tuari buruz egindako galderari, Orue-
 sagasti Hirigintza Batzordeburuak
 esaten zuen HBk zioena hipotesi hu-
 tsa dela.

Gezur honen aurrean, Herri Bata-
 sunak Elgoibarko herriari zera jakina-
 razi nahi dio:

Urruzunoko proiektua aspalditik
 dagoela Hirigintza Batzordean. Apiri-
 laren 28ko Gobernu Batzordeak
 proiektu hau hasiera batean onartu eta
 publikoki zabaldu zuen, alegazioak
 aurkezteko epea maiatzaren 27an
 amaitzen zelarik.

Proiektu honetan Urruzuno sekto-
 rea 3 zatitan banatzen da. Urruzuno I
 azpisektorean 5 pisuko 8 etxebizitza
 bloke eraikitzeke asmoa dago. 160
 etxebizitza egingo dira.

Urruzuno 2 eta 3 azpisektoreetan
 famili-bakarreko etxebizitza adosa-
 tuak eraikiko dituzte. Proiektu osoan
 258 etxebizitza berri egin nahi dituzte
 orain dauden 65 etxebizitzetaz gain.
 323 etxe egongo lirateke Urruzunoko
 sektore osoan.

Honez gain, errepide bat egingo
 da Melitongo zubitik San Rokeraino.

Elgoibarko Herri Batasuna

Eskerrik asko San Lorentzoko hazkarlarengatik

Terero hauen bitartez eskerrak
 luzatu nahi nizkieke maiatza-
 ren 25ean San Lorenzo auzoko ema-
 kumeok egin genuen bazkarian lagun-
 du ziguten guztiei.

Lehenik Udalarri eskerrak mahaiak
 eta aulkiak lagatzeagatik. Bigarrenik
 DEBEMENi eskerrak omenaldian lo-
 reak emateagatik, bai 88 urte dituen
 Antxolako Teodora Arakistaini bai
 Begoña Juaristiri. Balleko alkate den
 Pellori eskerrak bai eta soziedadeko
 presidenteari, Sebastiani ere. Zerbi-
 tzen ibili ziren guztiei, Begoñari fron-
 toia erabiliz uzteagatik, Gelatxori
 bazkalostea alaitzeagatik eta sukaldar-
 ritza lanetan ibili ziren Lutxi eta Iña-

kiri ere eskerrak. Azkenik, jaiari parte
 hartu zuten emakume guztien presen-
 tzia ere eskertu nahi nuke.

Juanita Txurruka

Elkoniribe alkate ohiari eskutiz

Fz dugu egun seinatu hau zu-
 re ekintza gogoangarriak oroi-
 tu gabe pasatzen utzi nahi. Sei urte pa-
 sa dira zure urtebetetzea ospatzeko
 horrenbeste esfortzu eta ilusioekin
 jaso genuena txikitzea erabaki zenu-
 netik: GAZTETXEA. Gutxi batzuk
 ahaztu ahal izango dute soldatapeko
 matoi armatuek herria okupatu zutela,
 eta egoera honek eragin zituen zauri-
 tuak, beldurra, etab. Nahiz eta beste
 hainbat alditan errepikatu den.

Ez dugu ahazten ere Udaletxean
 entzerraturik geunden objetoreak goi-
 zaldean txakurrek metralleten aurrean
 atera gintuztenean. Zure bakezaleta-
 sun eta tolerantziaren agerraldi garbia.

Edo zure detaile hura, lan brigada
 elizatik baja emandakoen zerren-
 dan egoteagatik gazte bat ez kontra-
 tatzea nahi zenuenean. Parrokoak gus-
 tura eta gure bitzitza pribatuaren kon-
 fidentzialtasunerako eskubidea erres-
 petatu gabe eman zizun zerrenda zen.

Ongi asko gogoratzen ditugu gure-
 gatik sentitzen duzun gorrotoaren adi-
 bide gehiago, baina nahikoa da haue-
 ki n.

Garate, Orue eta konpainiak zure
 besaulki eta soldata ederra kendu ziz-
 kizutenerarte. Beraiek ere pastelaren
 zati bat nahi dute.

Orain Brues S.A. enpresan lan egi-
 ten duzula esan digute, baina ez peoi
 bezala. Ikertzekoa litzateke kargu pu-
 blikoek haien agintaldiak amaitzean
 horren ongi ordaindutako lanpostuak
 lortzeko duten ahalmena.

Nahiz eta zure kasuan erraza den
 imajinatzea, Brues konstrukturak zure
 jauntxoaldian zehar izandako irabazi
 ekonomikoei erreparatuz gero.

Badakigu zure joan-etorrietarako
 Aixola, ikasleak haien ikastetxeetara
 joateko kooperatibako autobusak era-
 bili dituzula.

Eskutiz hau zuretzat, urtebetetze
 opari bezala. Gustukoa izatea espero
 dugu. Datorren urterarte.

J.A. eta P.G.



©11DIRIX

• Irakurle batek deitu digu galdera hau luzatzeko: **"Aspalditik dago Albitxurin parke bat egiteko asmoa. Asmo hutsa da, ala noizbait egingo da?"** Hirigintza buru den Jose Mari Oruesagastiren esanetan, "Albitxurin parkea edo dena delakoa egin aurretik, Mankomunitateak bailara-

ko zaborteziaren anpliazioa egingo duen ala ez, eta noraino anpliatuko duen jakin behar da. Geratzen diren terrenoekin zer egin erabakitzea Aldundiari dagokio. Sortzen diren beharren arabera, terreno horiei erabile-rra bat edo beste emango zaio: parkea dela, **lur** industrialerako dela..."



KEXAK

• Urasandin, Kalamua kallean bizi den emakume batek salaketa hau egin nahi du: "Jun dan ostegunian Radio Estudio irratiaren Oruesagasti zinegotziari entzun nion esaten, Kalamua kalia moztu ditxuen 4 pinuak eta okaran-arbola bat, alergia eta kerizia ematen dabelako moztu ditxuela. Adarrak moztuta keriziana konponduta dao. 20 urte daruate pinuek hor eta 10

bat urte okaranak. Ez da egixa pinu klase horrek (savana) alerjixia ematen dabarik, nire semia alerjixua da eta badakitx klase horrek ez dabala alerjiarik ematen. Gainera, arrazoa hori bazan, inguruan beste 12 pinu dao, eta hoiak ez ditxue ikutu. Okarania silbestria zala-ta moztu dabe. Ba, jakin deixala Oruek, okaran gozuak ematen zitxula arbolak".



TXALOA

• Ume batzuek tanborradako antolatzaileak txalotu nahi dituzte, "oso gauza polita iruditzen zaigulako".



• Lau neskatxok Inazio Bereziartua musikeskola txalotu nahi dute, "ikasturte amaierako kontzertuak oso politak izan direlako".

• "Txaloa futboleko jubententzat ama guztien partez. Gorriak pasatu ondoren garaipena eta gure txaloa ondo merezitakoa duzue."

BAI, ESAN?



Alex Garate

Talde Antimilitaristako kidea

Elgoibarko Talde Antimilitaristak antolatutako "Aste Antimilitarista"ren barruan hainbat ekitaldi burutzen ari da egunotan. Gaur egun intsumisioa babes sozial handiko mugimendua da eta Talde Antimilitaristak tin-ko eusten dio jarrera honi. Gai honen inguruan zertxobait gehiago sakondu nahian **Talde Antimilitaristako ALEX GARATE**ri deitu diogu.

- "Aste Antimilitarista" antolatu duzue. Zer lortu nahi duzue? - Gaur egungo gizarte militarizatuaren, gerrateen eta biolentziaren inguruan hausnarketa kritikoa bultzatu nahi dugu. Era berean, mugimendu antimilitaristaren filosofia eta estrategia berriak zabaldu, ahalik eta jende gehien erakartzeko.

- Zein da gaur egun Talde Antimilitaristaren egoera? 12 kide gara. Gehienak intsumisioak, nahiko beteranoak eta aurpegi eta ideia berriak ikusteko desiatzen gaude. Gure lana Elgoibarko herriari zuzendua dago batez ere, eta Gipuzkoan Kakitzat-en baitan zenbait Talde Antimilitaristekin koordinatuta gaude.

- Zenbat intsumisio dago Elgoibarren? - Jakin edo ezagutzen ditugunak 35 dira, baina gehiago egon daitezke. Euren egoera? Denetik dago. Batzuk epaiketaren zain daude. Epaitetik pasatu direnek zigor ezberdinak jaso dituzte: 3 hilabete eta 2 urte... Batzuk behin-behineko askatasunarekin kalean daude, beste batzuk, indultoaren zain. Badago espetxean urte osoa pasatu duenik ere. Hurrengoek, inhabilitazioa izango dute zigor modura.

- Zein da gaur egungo intsumisioaren filisotia? - Intsumisioaren azpian dagoen filosofia edozein motako militarismoren aurkakoa da, Intsumisioak aurrera jarraitu behar du, nahiz eta oraingo gobernuak derri-gorrezko soldaduzka laister desagertuko dela esan.

INTERNET?

Softlan,
Pedro Muguruza, 13
20870 ELGOIBAR
Tel / Fax: 74 43 61

[Http://www.softlan.com](http://www.softlan.com)
E-mail: desarrollo@softlan.com
internet@softlan.com

• **Igeriketa ikastaroa nagusientzat**

Kirol Patronatuak nagusien igeriketa ikastaroa ernango du ekainaren 2tik uztailaren 2ra bitartean. Astelehen eta asteazkenetan izango dira klaseak iluntzeko 8etatik 9ak arte. Hobe-kuntza ikastaroa ekainaren 3tik uztailaren 3ra bitartean izango da, astearte eta ostegunetan 8etatik 9ak arte. Prezioa 5.000 pta.koa da bazkideentzat eta 6.000koa gainerakoentzat.

• **DYAren diru-bilketa kanpaina**

Gipuzkoako DYA elkarteak diru-bilketa kanpaina egiten ari da Elgoibarren. Erakunde hau telefono deien bitartez herritarrei diruz laguntzeko eskariak luzatzen ari da. Informazio gehiago nahi izanez gero, 46 46 22ra dei daiteke.

• **Sanmigeldarren eguna**

Datorren ekainaren 15ean San Migel auzokoek euren eguna ospatuko dute. Egunean zehar Zuhaitz Gurruixaga, 16 urtetik beherako Europako futbol txapel-dunaren garaipena ospatuko dute. Goizeko 11:30etan meza izango da eta ondoren salda eta txorizoa banatuko da. Eguerdian San Migeleko IV. Banakako Esku Pilota Txapelketaren azken partidua jokatuko da. Segidan bazkaria izango da eta erro-meria Zabaleta eta Imanol trikitilariekin. Bazkari txartelak salgai daude 3.000 pta.n Arnueta harategian, Kalamua elkartearen, Ziarda harategian edo Jabier Arribalagari deituta (908 57 95 77). Epea ekainaren 10ean amaituko da.

Gastu militarrek eta objezio fiskala, aurtengo Aste Antimilitaristaren ardatza

Elgoibarko Talde Antimilitaristak antolatutako Aste Antimilitaristaren barruan, hainbat ekintza egin dira astean zehar. Argazkian, astearte arratsaldean Kultur Etxean izandako hitzaldian, gastu militarrek eta objezio fiskala aztertu ziren. Xabi Uhizi, Hernaniko intsumisora izan zen hizlaria. Ostegunean, zine emanaldia izan zen Herriko Antzokian. "Anabasa Eremua", Josu Eizagirre ondarrutarren laburmetraiaren ostean, pelikulan parte hartu duten aktore ba-

tzuk, skecht bat egin zuten. Segidan, Ongarri Zine Klubak "La segunda vez" filmea eman zuen. Gaur, haurrei zuzendutako jolasak egingo dira Plaza Handian eta bihar, hilak 31, kontzertua izango da Madalan Fundiziyue eta Arawak taldeen eskutik.

Aste hau antolatzearen helburua antimilitarismoaren ideia eta filosotia zabaltzea da herrian, gerren eta ejerzitoen aurkako kontzientzia eta bakearen aldeko jarrera piztea. Iaz Kode Penal berria eta inhabilitazioa ardatz

modura erabili bazituzten, aurtengo gai zentrala gastu militarrek eta objezio fiskala izango dira. Izan ere, "armagintzan erabilitako dirutza, urtetik urtera handiagoa da, ejerzitoen eta armen industriaren diruaz betetzen diren poltsikoen mesederako".



Euskararen ezagutza areagotzeko proiektu berriaren aurkezpenak

AEK euskaltegiak, Udal Euskaltegiak eta Elgoibarko Izarrak, euskara ikasle izandako 6 lagunekin batera, Elgoibarren **Helduen Euskalduntzea** eta Euskara Ezagutzaren Kalitatea Sustertzeko proiektua prestatu dute elkarlanean. Jakin dugunez, **oraingoz** proiektua **idatzi** baino ez dute egin eta aurkezpen ezberdinak egiten ari dira maitzean ze-

har. Proiektuak harrera ona izaten badu, I 998ko urtarrilean martxan jar-tzea da hiru erakundeon

nahia. Argazkian, Udal Euskara Batzordean egin-dako aurkezpenaren uena agertzen da.



Ikastolako neskak, Gipuzkoako txapeldunordeak eskubaloian

Ikastolako 8. mailako infantil nesken eskubaloi taldeak Gipuzkoako eskolarteko txapeldunordea izatea lortu zuen pasa den igandean Lasarteko kiroldegian izan zen finalean. Aurrez aurre La Salleko Azkar taldekoak izan zituzten. Elgoibartarrek egindako akatsez baliatuz, azken unean La Sallekoak nagusitu ziren II eta 13. Esan beharra dago, larunbatean Tolosan jokatu-tako finalurrekoan, elgoibartarrek erraz menperatu ziztuztela Bidebietakoak, emaitza 4 eta 6 izan zelarik. Argazkian behean, Maite Arenal, Idoia Epelde, Julia Fernandez, Itziar Gerrikabeitia, Ainhoa Gonzalez, Mireia Huidobro eta Sara Gurrutxaga. Zutik, Gorka Sastre entrenatzailea, Eva Acuña, Miren Arrieta, Oihana Apellaniz, Begoña Merino, Marisabel Mendieta, Miren Albarren eta Soana Romero. Erika Fernandez falta da.



Maite Uriartek Mankomunitateko Homiki Lehiaketan bigarren saria irabazi du

Maite Uriarte Ikastolako ikasleak Deba Beheko Mankomunitateak antolatutako "Kontatu Kontiren kontu bat" komiki lehiaketan bigarren saria irabazi du. Lehiaketan 400 ikaslek hartu du parte, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoak eta BDHko 1. mailakoak. Maitek Corte Ingle-sak emandako mendiko bizikleta bat jasoko du sari rnodura. Lehiaketan, Mankomunitateko maskota den "Konti" ingurugiroarekin zerikusia duten egoeretan marraztu behar zen.



Patxi Arriola ehiztaria omendu zuten La Union elkarteok

Joan den zapatuan, La Unidn Elkartek omenaldia egin zion Patxi Arriola Espainiako Oilagorren txapeldunari. La UniOn elkartean 90 bat lagun bildu ziren bazkari baten bueltan. Bazkalostean elkarteko ordezkari batek plaka bat eman zion Patxiri eta honek esan digunez, "benetan polita izan zen. Giro ona egon zen eta eskertzekoa da elkarteko-ek nirekiko horrelako begirunea izatea".

• Bolo txapelketaren sari banaketa eta Sabin Oregi botaliapi omenaldia

Bihar, hilak 31, Gipuzko-ako XXVIII. Bolo Txapelketaren sari banaketa egingo da Ararnaixoko Murro elkartean lagunarteko bazkari baten bueltan. Satunigeldarrak bazle izan dira taldeka, bina-ka eta banakako mailetart. Ekitaldian zehar, bi bolari omenduko dituzte, Faustino Lazkano eta Sabin Oregi, azken hau Soraluzen jaiotako baina Elgoibarren ezkondu eta bizi dena.



• Gurasoen Eguna ikastolan

Datorren ekainaren 14rako, Gurasoen Eguna antolatu dute San Bartolome Ikastolak.oek. Guraso, ikasle, guraso ohi eta guztiei gonbidapena luzatu nahi diete antolatzaileek. 74 44 41 zenbakira deituta izena eman edo argibideak jaso daitezke.

• Akuarela ikastaroa

Egur Arte Tailerrak akuarela ikastaroa antolatu du ekainaren 9tik 27ra bitartean. Klaseak egunero izango dira arratsaldeko 6etatik 9ak arte. Izena eman nahi duenak Egur Arte Tailerlean egin dezake.

• Igeriketa eta aerobikerako kontratazioak

Udal Kirol Patronatuak igeriketa eta aerobik zerbitzuak subkontratatzeko baldintzak kaleratu ditu. Igeriketan 6 milioiko irabaziak eskaintzen ditu Patronatuak. Zerbitzu honekin batera, tenisa, eskalada eta kirol-anitza ere betetzeko proposamena aurkeztu beharko ditu eskatzai leak.

Aerobikean aintzat hartuko diren irizpideak garrantziaren arabera, honako hauek dira: preziorik merkeena (%40), zerbitzu onena (%20), esperientzia frogatua (%15), titulazio akreditatua (%15) eta ahozko euskararen ezagutza (%10). Proposamenak aurkezteko epea ekainaren 2an arnaituko da, eguerdiko 11etan. Baldintzak Kiroldegian jaso daitezke goizeko 10 letatik ordu batera bitartean.

• Bake Epailearen ordezkotzeko deialdia

Udalak Bake Epailearen ordezkotzeko pertsona izendatzeko deialdia egin du. Interesatuak dauden pertsona guzdek Gipuzkoako Buletinean argitaratu eta 15 eguneko epea izango dute eskakizuna aurkezteko. Bete beharreko baldintzak adin nagusikoa izatea eta Legezko ezintasunik ez edukitzea dira. Eskaearak Udaletxeko Idazkaritzan aurkeztu beharko dira.

7 eta bitarteko prezioa izango dute babes ofizialeko etxeak

Babes ofizialeko etxebizitzentzako hasierako plan partziala onartuta dago eta martxan daude eraikitzekeko tramite administratiboak. Guztira 165 etxebizitza eraikiko dira, eta batzuek besteko prezioa 7 eta 11 milioikoa izango da. Udaletxean jakinarazi digutenez, "kalitateko materialak erabiliko dira eta prezio aldetik ondo daudenez, jende gazteak aukera izango du aipatu etxeak erosteko".


Zortzi etxebizitza blokeak Ikastolan hasi eta Karkizanoko etxeak bitartean eraikiko dira. Obrei dagokionean, berriz, 1998

urte aldera hasteko asmoa dago.

Ikastola aldean rotonda bat egingo da eta etxebizitzentzako aurrean parke eder bat, aparkaleku eta oztopo arkitektonikorik gabeko oinezkoen sanerarekin.

Udaletxean azaldu dutenez, trenbidearen azpitik sarrera egiten ez den bitartean, Karkizano etxeen parean ez da eraikiko ez errepiderik, ez beste etxebizitzarik.

Eskuman, babes ofizialeko etxeak eraikiko diren terrenoa. Behean, planoak.



Bost barraka Trinitate jaietan

Azken urteetan ez da aukerarik izan Elgoibarren aurretan Trinitate jaietan izan diren beste barraka egoteko. Arrazoiak, Blanka Salegi Kultur teknikariak esan digunez, jaiek hileroko feriarekin bat egiten dutela da. "Feriak lehenetsuna dauka eta barrakeroek ez dute nahi izaten Plaza Txikia ez den beste toki bat. Proposatuta izan diegu bai Santa Ana kalea, eta bai Ikastola ingurua ere, San Juan suak egiten diren toki buelta. Azken hau txukundu eta egokitzekeko prest azaldu izan gara baina ez dute sekula onartu". Aurtengo Trinitate jaiek ez dute bat egin hileroko feriarekin, horregatik bost barraka desberdinek izan dute aukera etortzeko. Udalak hainbesteko bat kobratzen diete, "kopuru sinbolikoa da eta horren ordainez, eurek herritarrei prezio merkeagoak jaffi behar dizkiete. Aurretan, esate baterako, 100 pta. haurrentzat eta 150 nagusientzat".



ISPILUA BEGIRA



?1)

‘,-lerr.ero

BILBAO-EXPRESS
bidaia agentziakoa

- **Euskal Herriko hiriburu bat?**
- Donostia, bertakoa naiz eta.
- **Hiri erromantiko bat?** - Paris.
Hondartza erlaxante bat? - Greziako kalak,
- **Paradisua?** - Mendi tontor bat, elurrarekin eta zeru urdin eguzkitsuarekin.
- **Ezagutu nahi zenukeen tokia?**
Perito Moreno, Patagoniako glaziar bat.
- **Monumento bat?** - Estanbuleko Santa Sofia basilika.
- **Elgoibarri falta zaiona?** - Aire libreko igerilekua, belodromo bat eta pasea Teku bat erreka bazterrean.
- **Eta zein da Elgoibarrek duen xarma? Jendea.**
- **Bidaiatzeko arrazoi bat?** - Ondo datorkigu ikuspegia ireki eta munduan bakarrak eta jatorrenak ez garelako ikusteko.
- **Plazer bat?** - Irakurtzea.
- **Garraio bat?** - Itsasontzia.
- **Maletan sekula falta behar ez dena?** - Barruko erropa.
- **Irla batera eramango zenukeena?**
Jose Luis Sampedroren, "La vieja sirena" liburua.
- **Eguzkitako zein krema faktore erabiltzen duzu?**
- Babes osoa, 30a edo.
- **Kultura erakargarri bat?** - Egipziarra.
- **Eztai-bidairako toki bat?** - Brasil, Peru... Karibea.
- **Non galdu nahi zenuke?** - Grezian.
- **Zein tokitako gastronomia gustatzen zaizu.**
Euskadikoa.
- **Agurtu zaitez beste hizkuntza batean.** Grekoz: Ylsas.



UDALEKU ITXILIK

eur Z71"*. .

||E 1•4

E

at or. oca

AUBIXAN

dig ■ NLALEILAKIDENNITZAT

Irteera: uztailaren 7an goizeko 10:30etan Plaza Handian.

itzuiera: uztailaren 12an eguerdiko 13:00etan Plaza Handian.

Zer: mendi-irteerak, eskulanak, antzerklak, jolasak,

Prezlea: 10.000 pta.

IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA: ekainaren 5a

ELGOIBARKO IZARRA Ubitarte 4, behea

© 74 16 26 (Ma Jesus)



ATXUTXIAMAIIKA Begirale taldea ■ ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkarteak
LAGUNTZAILEAK ELGOIBARKO UDALA , EUSKO JAURLAUTZA ETA GIPUZKOAKO FORU AIDUNDIA



Bias Toledano Garcia

(1912-1995)

Nondik begirutzen den da dena. Mundu honetako bizitzak behartuta, mila bidetxidorez ezkututa zehar joan ohi gara edo, joan behar gabe aurki-tzen gara, Inork ez du nahi, edo ezin dugu bidean planto egin. Etengabeko mugirrendu orokorra geldiezina denez, denbora joanez gero, zure bizitzan egin duzun ibilbide luzeari begirada botatzean, batzuetan, uste izan dugu, bizitzeak ez duela pena mrenezi. Beste zenbait unetan positibotzat jotzen dugu eta esku hutsik ez zoazela eta, poztu ere egiten zara. Horixe da bizitza. Bizi eta sufritu, sufritu eta bizi. Nondik begirutzen den dena.

Gaurko pertsonaia, oso gazterik, 16-17 urterekin Bilbora joan zen ogibide bila. Geroago, Kamineroko pilotalekuan pilotan ikasten ibili eta ikasi ondoren, Donostiara egin zuen lehenengo jauzia. Ondoren, Espainiako hiriburu nagusienetan jokatu zuen, Sevilla, Valencia, Barcelona eta Madrilen, besteak heste. Pilotari onenetarikoak izan zen. Pilota mundua bukatzean, Ameriketara joan zen eta han negozio txiki bat jarri zuen. Urte batzuk bertan egin ondoren eta herriminak zirikatuta, bere sorterrira itzuli zitzaigun eta gure artean bizi da.

Baina, nor da Elgoibarren jaio, munduan zehar ibili eta hemen bizi den pertsonaia hau?

Testua: Felix Etxeberria
"Parapan"

Erantzuna badakizu, ekarri
BARREnera.




- 1912ko otsailaren 3an jaio zen Guadalajarako Illana herrian.
- Sei anai-arrehen artetik bigarrena zen bera. Eskolan ikasteko aukera handirik gabe, gazte denboran nekazaritzan egin zuen lan, bere familia osoak bezala.
- Gerrate Zibilaren garaian Juliana Alonsorekin ezkondu zen zibilez, soldaduzkan eta Gerrate Zibilean lau urte igaro eta gero, elizatik berri ezkondu behar izan ziren, aurreko ezkontza ez omen zen nahikoa eta. Sei seme-alaba izan zituzten.
- Seme-alaba guztiak Elgoibarrera etorri ziren bizitzera eta atzetik, 56 urterekin, Blas eta emaztea.
- Carrocerias Apalategin egin zuen lan jubilatuta arte.
- Sei seme-alabek hamaika iloba eta lau biloba eman zioten, guztiak Elgoibarren bizi direnak. Bere pasioa bere familia zen. Barre apala zuen, baina goxoa.
- Bere afiziorik handienak futbola eta Zaharren Egoitzan musean aritzea ziren, behin txapeldun izatera iritsi zelarik. Irakurle amorratua zen eta ez zituen sekula betaurrekorik erabili.
- Blas-ek eta emazteak urrezko eztaiak egin zituzten.
- 83 urterekin hil zen 1995ko urtarrilaren San.

Juanito Gorostiza

o_r
ale cia?

195. zenbakiko
"Nor ote da?"
lehiaketaren
erantzuna: Patxi
Osoro erlojeroa.



Jon Aranoa
Gillermo Torres

Albaitaritza
klinika

San Roke, 26 • Elgoibar • TEL: 74 07 04 — 908 87 39 40



11440.11101

Ctnyo.

Olaso industrialdea. Olasape, 66-A

Tel. Faxa: 74 42 54 - 20870 ELGO1BAR

MEKANIZATUEN TAILERRA

Egunik ccierrena



E.....,11V10110rnd edo
t(ICTRllel ialieil)111C1 dd.
l'1zila clotc behintzdf. Kolittili
cia, licro elti billoic gehiaqo
tzlioRtzen (Icla. 1996zin 25
ezkuntzi erreglstrarti ziren
Elgobarko Iklaleixem. Adinari
citiipkionctn, berriz,
cusidcliowli 25 clu 30 uric
1)ittirtea■ hartzen dute ezkoiltzeko
ertilmkin. Eta gel*11-gchiencik,
elizatill ezRontzen clira (iami
balcan "betirtitio" izateR zela
esaten zen. gatir egun "bdirdiv")
hitzt] gelliiegizkoti izan clail("ke
boino, illisiozi)cleriko egtina
iznten del normdlean.
laizitzei amaitztar dago.
EzkoRiza stisoitn gaudel)ric-
betcan. Ondoko orrickm,
czkontzeto asmotan claticicri
biRotecilizat hainlmt aholkii eld
gomen(li) Itlzattillo dilucjii,
zenbdtl)itxikeria taricRolliz.
Bikote ezil(nberriei, ctn
czliontzekottin diren gtEtici,
zorioliok!



San inazio, 5 beheia
Tel: 902-10 3



Luxuzko auto
paregabeak dauzk
Gidaririk gabeko
autoen alogera

foto

Tel: 74 08 48

San Bartoime, 26

azkue

7Lwe ezkonizclko utnelAik

bereziencli< bi2_ifzet osor"ctko
oroicintltycl< izati cictifezen

ARANTZAZU

Edergintza

San inazio 4, - Tel, 74 27 25

ileapaindegia

San Inazio 4, - Tel. 74 27 25

AGURTZANE
Ileapaindegia

San Bortolome,4 atzekoldeo
Tel: 74 18 64

ELENA

Ileapaindegia

San Franzisko 49-1 • Tel. 74 11 89

FADEK

&ap ain ofeyia

errosario - z/r 74 26 92

Garbiñe

EDERGINTZA

P.M. Iiruzuno 27 - Tel: 74 31 32

IDAMA

LEAPAINDEGIA


Santa Ana, 7 - Tel. 74 40 26

● **DONNA** ●

Ileapaindegia- Edergintza

Pedro Muguruza, 13
Tel: 74 43 88

Egunik **EDERRENA** profesionalen esku!!



ricle

ILEAPAINDEGIA

n740069
San Franziska, 40 3 - B

Maria Urizar

**ileapaindegia
solariuma**

Errosario 9-1 74 44 89

NAHIA

ILEAPAINDEGIA

Azpilgoeta, 16 - Mendara
Tel. 75 51 01

NIEVA

ILEAPAINDEGIA

San Frantzisko, 9
Tel. 74 04 96

Ri

iteapaikbeli4

Errosario 6 - 1 Tel. 74 30 11

Sidael

ILEAPAINDEGIA

San Franzisko 26-1 • Tel. 74 09 51

r«Z.thalic

ILEAPAINDEGIA

t 4h.

Kalamaa, 2 - Tel. 74 43 57

JOSE ANTONIO

ILEAPAINDEGIA

Errosario, 30 - Tel. 74 i 4 92

ITZA LA

Ede/

San Frantzisko, 49 - 1 esk.
Tel. 74 43 03

liXABIER

ILEAPAINDEGIA

San Bartolome, 13 - Tel. 74 19 97

'() Zurtoina bistan duten lore-sortak modan daude

Ezkontzara emazte-gaiak eramaten duen lore-erramuak badu esanahi berezirik. Izan ere, jatorriz, lore sorta eder hori, senargaiak andregaiari bere edertasunaren omenez egiten dion oparia da.

Loreak ez dira edonola lakoak izan behar. Kontuan izan behar da soinekoaren kolorea, estiloa bai eta neska-aren izakera, altuera eta adina. Larrosa eta orkidec:tk erabiltzen dira normalean ezkontza erramu bat egiterako orduan. Elgotbarko toradenda batean esan digutenez, "horia, salmoia eta bestelako kolore suabeak dira jendeak gehien atsegin dituenak baina, gaur egun, gero eta gehiago egiten dira erramuak kolore biziagoekin". Hiru erramu mota daudela azaldu digute, "sinpleenak esponjazko bota baten gainean eginikoak dira eta batzaz beste 4.500 pta.

balio dute. Bestalde, orain arte gehien egin izan direnak alanbratuak dira, lore bakoitza alanbratu eta forratu egiten da eta lan handia ematen du, Horregatik, aurrekoak baino garestiagoak dira, lorearen arabera 10-15 mila pta. arteko kostua dute. Azkenik, gero eta gehiago egiten dira zurhoina bistan daukaten lore-sortak. Polite-nak dira, naturalenak".

Orkidea omen da lorerik garestiena eta mota baten edo bestearen arabera, 500 eta 5.000 pta, artean balio du orkidea bakoitzak. Jendeak loresaltzailearen aholkuak entzun eta jarraitzen ditu, "pertsonearen izakerearen eta soinekoaren arabera izan behar da". Hona hemen laister ezkondu behar duenarentzat proposamen bat: "zurtoinak aske erakusten dituen larrosa, eukalipito eta lore txiki basatiez eginikoa, kolore bizi-zietan"



Loturaren sinboloa

Gaur egun gure artean ez da gehiegi erabiltzen konpromezu-oparia egitearena. Haiere, garai batean, eta batez ere, maila altuko iendearen artean, oso sustraitua zegoen ezkontza data jarri aurretik ezkongaien artean opari bana egitea. Normalki, senargaiak eratzuna oparitzen zion andregaiari eta honek muthari, erlojua.

Berilantedun aliantza Berdiak dira gehien saltzen direnak. Hata esan digute herriko bixidendetan. Batzaz beste, urrezko eta bricntnedun eratzun bateg 30.000 pta. balio dituela eta hortik aurrera, nahi beste igo daitekeela prezioa. Azkenaldian urre zuria oso modan dago eta gauza bereziak gustuko dituztenen artean oso harrera ona izan du.

Ezkontza-eratzunen artean klasikoa nagusitzen da, urrezko aro sinplea. Dena dela, badaude grabatuekin edo britante txiki bat

daramaten eratzunak ere. Urrezko eratzun sinple klasikoak 7.000 pta.tik gora balio ditu, neurriaren eta pisuaren arabera, eta brilantedunak, 19.000 pta. inguru.

Gainontzeko osagarriel dagokienean, emaztegaiak soinekoa izaten du kontuan eta jostunak aholkatutakoa egiten du. Belarritako txikiak jazteko esaten badio, txikiak erosiko ditu.

Gizonezkoek gorbatarentzat orratzak eta alkandorarentzat mahuka-bikiak erosteko ohitura dute. Euskal Herrian ez baina Estatuan gero eta gehiago saltzen dira urrezko kate, domina eta purtserrak.

Arrek, senarrak emaztea erosten duela esan nahi dute. 12 arra izaten dira normalean, tamaina eta irudi desberdinetakoak, urrezko nahiz zilarrezkoak baina arrak erosi baino gehiago, familiakoek utzitakoak eramateko ohitura dago.



Ezkoniza gozatzeko tartak (0)

airibilak, laukiak, blhotz formarektn, bikotearen inízia lekin... Hainbat eta hainbat aukera daude ezkontza ospakizuneko tartari ukitu berezia emateko. Ikkokolatezkoa, natazkoa, krema eta ojaldrezkoa... Zaporeari dagokionean ere, hamatka konbinazto desberdin egin daitezke.


Ezkontza ospakizunean tartak berebiziko garrantzia dauka. Izan ere, ezkonberriak tarta moztera doazen momentua majikoa izaten da eta ekintza honek ere esanahi berezia du. Ezkonberriek euren lehen mokaua hartzen dute elkarrekin eta aurrerantzean batera izango duten bizimoduaren hasiera sinbolizatzen du. Gozogintza, fruitu eta haziak betidanik izan dira emankortasunaren isla da eta garai batean, greziar eta romanoek ezkongaiel aurpegira botatzen zizkieten, gaur egun arrozarekin egiten den antzera.

Denborarekin, pastefero erromatarrei emaztegiarri burutik behera pastel zati txikiak botatzen hastea okurritu zitzairen eta, ondoren, senargaiak bere emaztea zenaren aurpegitik zuzenean mokauaren bat jan behar izaten zuten. Geratzen ziren hondarrak gainontzeko gonbidatuen artean jaten ziren. Ezkonberrien oinetan pastel zatiak pilatzen ziren eta ondorioz, duela hiru mende, gaur egun hain ezaguna dugun pisu desberdinetako tarta sortu zen.

Tarta guztiek gainean bikote ezkonberri baten irudia eramaten dute, ezkondu direnek bikote adiskide bati oparitzen diotena, hauek ere laster ezkontzea opatuz.

erotikoa

Aspaldian ezkongaien despedidak ugaritu egin dira. Eta horietan, gauza xeble eta bereziak egitea izaten dute gustuko kuadrilakoek. Izan ere, Elgoibarren gehiegi ikusten ez bada ere, kostaldeko herri askotan ezkongai mozorrotzeko ohitura dago eta opari lizun eta pikanterik ez da falta izaten. Azkenaldian, gainera, tarta erotikoen usadioa ugaritu egin da. Tarta erotikoa egiten dituen pastelero batek esan digutenez, bi modelu dituzte, bata nesken despedidetarako eta bestea mutilentzako. Batak zakila darama, besteak, neskaren gorputza, titietatik behera. Tarta nahi den zaporekoa egiten dute eta gaineko formak txokolate zuriz eta esne kondentsatuz beterik. Batz bestea, 1.000 pta. balio du tarta erotikoen razio bakoitzak.



<p><i>Fotografia</i></p> <p>SOARTE PUBLICIDAD</p> <p>Santa Klara, 12 Cklarkinako bidea) 20870 Elgoibar Tel-Fax: 74 20 21</p>	<p>Bodakd</p> <p>eta</p> <p>erreportaiak</p>	<p>karkizano</p> <p>San Franzisko 12-14 - Tel. 74 05 49</p>	<p><i>Arrieta</i></p> <p>San Bartolome, 18 Tel. 74 08 49</p>
---	--	--	--

VIAJES 1195ki

Sukurtsala: Toribio Etxeberria, 3
20600 EIBAR
Tel: 10 06 84 - Fax: 10 40 67

- **Zure neurrira programaturiko bidaiak**
- **Garrantzitsuena orientaziou da.**
- **Zatoz eta kontsulta ezazu.**

EzkoRcluko baziRd, Rola egingo zenuke?



ITSASO ZUBIAURRE

20 urte, ikaslea

Ahal badot elizatik, familia eta lagunekin. Jende pilua ere ez, baina gertukuak bai. Ni Lasturkua naiz eta han ezkontzeko ilusiva dakat.



PATXI GOMEZ

24 urte, ikaslea

Ez nintzake ezkonduko, ez daukat asmorik, beraz, zaila egiten zait egoera hori imajinatzea. Halere, ezkontzak bazkaltzera joateko aitzakia direla iruditzen zait.



ANGEL MURILLO

31 urte, postaria

Ezkontzekotan, zibilez. Familiarekin, lagunekin eta ingurukoekin bazkari baten bueltan ospatuko nuke. Zerbait berezia denez, ongi ospatzea merezi du.



ARRATE ZIGORRAGA

35 urte, espezialista

Ni Loiolan ezkondu nintzen soineko zuriarekin, familia eta lagunekin. 150 lagun elkartu eta jatetxe batera joan ginen bazkaltzera. Gaur egun berdin egingo nuke,



KATI RIIIZ

34 urte, etxekoandrea

Elgoibarko Parrokian ezkondu nintzen soineko zuriarekin eta nobioa ere dotore. Familiakoak eta lagunak elkartu ginen, 100 inguru guztira. Oroitzapen oso ona daukat.

HAU GUZTIAREKIN GATOZU:

**ORA1N, astebete
leku hauetan:**

MALLORCA

Dali hotela - 3*PE

40.900 pta.

Bidaialagunak:

9/050eko beherapena

GRAN CANARIA

HEG OALDEA

Rio Sol hotela - 3*PE

64.900 pta.

LANZAROTE

(ezkongaiantzat)

Beatriz hotela - 4*PE

72.600 pta.

LANZAROTE

(45 urtetik

gorakoantzat)

Lancelot hotela - 3*PO

61.100 pta.

LANZAROTE -

TENERIFE (2 astej

Goya/Miramar hotela -

3*PO

91.900 pta.

LONDRES (3 gauj

Tavistock H.- Igo maila

OG

57.600 pta.

Royal National hotela -

Igo maila OG

58.000 pta.

ERROMA (3 gauj

Tempio hotela - 3*OG

56.900 pta.

Napoleon hotela -

4*OG

67.500 pta.

ESTANBUL (astebete)

Hotelak - 3*AG

65.500 pta.

CARTAGENA DE

INDIAS (astebete)

Capilla hotela - 4*AG

123.900 pta.

*PE: pentsio erdia

*PO: pentsio osoa

*OG: ostatua + gosaria

ETA HAUEZ GAIN:

Thailandia, Egipto,

Cancun, Santo

Domingo, New York,

Txina, Kalifornia, Brasil,

Argentina, Kanada...

Dudarik gabe,

hemendik aurrera,

zatoz gure bulegora:

.4101

VIAJES BIDAIAK
BILBRO EXPRESS

Foruen Plaza, 3 Elgoibar
Tel: 74 39 72



ASTIGIIRRAGA
lorat⁴anda

Jausoro plaza, z/g
Tel: 74 43 86



E₃4044/34444n e)~ (44 el4 eLZ214ex

444451e4" apainketa

IOSU

bitxidenda

San Bartolome, 4 Tel: 74 40 48

**EZKONGAIENTZAT
ESKEINTZA BEREZIAK**

oikiak eta

korbata-orratzak.

Lepokoak: Perla landuak

Anbar-a

Agata urdin eta berdeak

Lapislazuliak

Komalinak

Tigre-agatak

Amatistak

Malakitak

Turkesak



Lehenengo urteurrena ospatzeko, lepoko ikusgarri hau zozketatuko dugu uztailaren 30ean, ekainaren letik eta zozketa egunerarte gurean erosi duzuenon artean.



Ines

Navarra kalea, 12 BILBO

*rB1/6'o erc&w, _7.nesen JenoraX,
Ines, Cosiura 9Cooiase'
(5rizoczrra 12, _Plaza
zirAtlarrean) moofao
Cilofuma Pnena jarben clizLZu-
esXura, eyunyo
onene';:12.-7)ielorio ela
ruccAino, Zeooth ela gon26a,
Yesus ofe 9ure
esczparczleelan punfa-punlcdo
iberdzi auriitjo ofiluzu.*

geriuo ofencia

gi abat desberdinekin



Danais Novias-ek
denboraldiko
soinekorik
erromantikoenak
eskaintzen dizkizu.
Betiko kalitate eta
konfidantzarekin.
Zatoz **Danals**
Novias-era.

Bilenos Aires kalea, 7 Bilbo

DaNals



Aste honetako argazki hau Teresa Aginagak laga diguna da. Bertan Santa Ana kalean Eulogio Estartak eduki zuen garajea agertzen da.

Begira aurrean dauden automobilen modeloak, benetan aspaldi-koak. Hemen agertzen diren hiru gizon ho-

riek "Estarta y Eeenarro" edo Sigma tailerreko txofer ofizialak izan ziren, oso ezagunak herrian eta erbestean.

Kilometro pila egin zituzten urte askotan, aireportuetara mundu guztiko arrazako jendea, herrikoak eta atzerritarrak eramanez bai eta beste era bateko bidaiaria asko egiten ere.

1955-56 urte inguruko argazki honetan ezkerretik eskuinera agertzen direnak Paco Ansola (t) parrokoa, Paco Riaño (t) eta Jose Inazio Sarasua (t) dira.

HERRI-GAİN
ERRETEGIA

San Pedro auzoa 4
(Tr 74 30 40) ELGOIBAR

IRAKASLE ESKOLA MONDRAGON UNIBERTSITATEA

1997-98 ikasturterako aurreinskripzio-epoch zabalik dago honako karrera hauetan:

• **MAGISTERITZA:**

Espezialitateak: **HAUR HEZKUNTZA**
HEZKUNTZA BEREZIA
ATZERRIKO HIZKUNTZA: INGELESA

• **HUMANITATEAK-ENPRESA** lizenziatura: Lizenziatura honen profesional gaituak sortu nahi ditu, pertsona eta erakundeentzako kudeaketa, zuzendaritza eta garapenean sortzen diren eskaera eta beharrei erankuieka prestatuak.

INFORMAZIOA: IRAKASLE ESKOLA - 20540 ESKORLATZA
(943) 71 41 57

Ornik **rduko tiro txapelketian laugarrena izan nitzan"**



Unai Oñederra

- **Adina:** 20
- **Zenbat eskopeta?** Bi, Laurona bat tirorako eta Beretta bat ehizarako
- **Txakurrik bai?** Hiru ditzut: Neska, Lur eta Bat. Pointerrak eta Pointer Spaniel-ak
- **Usakumeak goxoen nola?** Saltsan

—**Tiroan trebea zarela entzun dut.**
- Piska bat, ez asko. Oin dala hamar bat urte hasi nitzan. Aitxa zalia da eta harekin hasi nitzan.

—**Trinitateetako pitxoi tiraketan lehena atera duzu. Erraz?** - Suertia gehixao. Lau geratu ginan eta bestiak erretirau ein zianez bastante erretz irabazi naban. Nik zazpi usakume bota nitxun danera. Bost kaixola daude eta batetik usakumia ateratzen da. Atzian sare bat dao eta sare horren barrura jausi bihar dia. Hoiiek dia kontatzen dutenak. Kanpora juten bada kalera zuaz.

—**Kalkula al dezake norberak txoria barrura joango den ala ez?**
- Ez dago kalkulaterik. Hori suertia da. Batetik punterixia eta bestetik, suertia.

—**Zer egiten duzu gero usakurreekin?** Batzuetan jan. Bestela erregalau.

—**Tiraketa askotan parte hartzen duzu?** - Bai, txapelketa askotara juten naiz. Arraten daozen ixa guztietara. Kanpora ere juten naiz: Madrilera, Zaragozara... Bartzelonan ez nao egonda, baina badakat juteko asmua. Orain arte Espainiako Kopa batian, Europako Txapelketa batian eta Munduko bi txapelketatan parte hartu dot.

- **Eta zer moduz?** - Espero baino hobeto. Helizeari eitzen zaio tiro, usakume artifiziala balitz bezela. Munduko txapelketian, 22 urtez azpitik laugarren postua ein naban. Espainiko Kopian nere kagorian nik irabazi naban eta generalian hirugarrena gelditxu nitzan.

—**Tiratzaile on batean punteria al da dena?** - Punterixia, errelfejuak, bizkortasuna... Praktikatzten lortzen da hori. Nik generalian platuan tiratzen dot praktika piskat eukitzeko baina bestela ez dot tiradarik eitzen, oso garestixa dala. Garestixena da lekuetara jutia, han lo eitxia, kartutxuak, platuak... eta inskripziva, hori da karuena. Italiako azken munduko txapelketan 100.000 pta. zian inskripziva. Madrilako Munduko bi txapelketetan egon izan naiz eta oso karua zan. Hala ere, sub 22xan nahiko ondo urtetzen da, premixua irabazten badozu inskripziva deskontau eitzen dizuelako. Premixua ez bada oso ona askotan pagatzia tokatzen jatzu.

—**Zer eskopeta duzu zuk?** - Laurona bat. Nere esponsorra da. Eta kartutxuetan Armusa da nere esponsorra.

Eskopetak berdinak al dira ehizarako eta tirorako? - Ehizakuak tubo bakarra daka, hiru tirokua eta arinaua da. Tirukuakin, berriz, bi tiro bota leikez eta ehizakua baino astunaua da, tirua amortiguatzeko.

—**Ehizan ibiltzen zara?** Urrixan, denboradia hasten danian, amaitxu arte. Kanpeonatuetan ez naiz ibiltzen, beti nere kontura, usotian eta ofiagorretan batez ere. Kotuetara juten naiz, Rioja aldera batez ere.

—**Zer da zuretzat ehiza, kirola ala afizioa?** Afizua ba da, baina kirola ere izan leike, ze mendixan asko ibiltzen zera batera eta bestera.

Eskuhaloiko kadete neskek, Hopako txapeldunak

Joan den zapatuan Mutrikun jokatu zuten Unceta Elgoibar taldeko kadete neskek Kopako finala. Partidua Zarautzko Amenabar taldekoen kontra izan zen, "partidu gogor xamarra" klubeko kideek adierazi bezala. Hala ere, elgoibartarrek 13 eta 11 irabazi zuten. Hortaz, Kopako txapeldun dira. Titulu honez aparte, Ligan txapela lortzeko aukera handiak izan zituzten baina azkenean lehen sailkatuarengandik bi puntutara geratu ziren.

Bestalde, eskubaloiko talde guztiek, urte bukarako bazkaria egingo dute domekan, ekainak 1, Lasturren. Eguerdiko 2etan izango da eta 160 bat lagun elkartuko dira. Esan digutenez, zezenak eta guzti izango dituzte. Ondo pasa eta zorionak?



Unceta Elgoibar taldeko neskek, entrenatzailea eta zenbait guraso **Kopa irabazi eta gero.**

Rategoria igoera eta ligako txapela futboleko jubenilentzat

Berdinketarekin nahikoa zuten baina, hala ere, Ohorezko Jubenilen Ligan jokatzeko duen elgoibartar taldeak 4 gol sartu zizkion Ourretako Beraun taldeari. Euskal Ligara igo dira eta gainera, Ligako txapela irabazi dute. Makaleko lana egin dute jubenilek aurtengo denboraldian. Jon Galarraga Club Deportivoko zuzendaritzako kideak adierazi bezala, "taldeak oso gogor hasi zuen denboraldia. Hasieratik goren postuetan kokatu ziren, Ordizia eta La Salle taldeekin batera". Liga osoan zehar hiru taldeen arteko norgehiagoka izugarria izan da. Momenturen batean bazimkien elgoibartarrak makaltzen hasiak zirela, "3. posturaino jaitsi ginen eta". Baina une horretatik aurrera gauzak ezin hobe joan dira. "Segidan jokatu ditugun azken 12 partiduak, denak, irabazi egin ditugu".

Kasik 100 gol

Galarragak esan bezala, "penaren bat" edukitzekotan, 100 gol sartu ez izana da, izan ere, zapatuan Mintxetan sartutako 4 golekin, 99 gol markatu dituzte liga osoan.

Euskal Liga

Ohorezko Ligatik Euskal Ligara igo dira jubenilak. Hemendik aurrera Bizkai eta Arabako ekipoen aurka ere jokatu beharko dute. Perspektibak "nahiko onak" direla esan digu Jon Galarragak. "Jubeniletan hiru urte izaten dira eta gure taldeko askori beste urtebete geratzen zaio oraindik jubeniletan. Honek esan nahi du ondo ibiltzeko moduan egongo direla". Ekipo sendoa da jubenilena, "partidu asko jokatu dituzte elkarrekin eta ekipo bezala dabilte jokatzeko".



Atzean, Julen Irizar, Pedro Santiago entrenatzailea, Iker Leonardo, Xabier Elustondo, Aitor Zubiaurre, Iker Polo, Ruben Diaz, Xabier Guallar eta J.I. Laskurain ordezkarria. Behean, Ibon Etxaniz, Iñaki Laskurain, Santi Carrascoa, Loren Galeano, Roberto Cordan, Asier Arenas, Iffigo Araujo eta Alex Vigara. Alberto Diaz falta da argazkian.

KIROL ALBISTEAK

• Igeriketa jaialdia larunhat goizean

Bihar, larunbata, igerilekua itxita egongo da igeriketa jaialdia antolatu baita benjamin, alebin eta infantilentzat, Goizeko 10etan hasiko da jaialdia benjaminentzat eta 11:30etan alebin eta infantilentzat. Igerilariak ordu erdi lehenago agertu beharko dira bertara. Altxorraren bila, erreleboak koltxonetarekin, trebetasun zirkuitoa, tirolina eta zapiaren jolasa uretan egingo dituzte.

• Mintxetako Futbol Txapelketa

Udal Kirol Patronatuak eta Pedrusko Futbol Taldeak Mintxetako Futbol Txapelketa antolatu dute ekainaren 2letik uztallaren 20ra bitartean. Zazpi kideko taldeek jokatu ahal izango dute txapelketa honetan. Izena emateko epea ekainaren 14an amaituko da. Prezioa 6.500 pta.koa da talde bakoitzeko. Izena emateko Kiroldegiko 74 44 15 edo Mintxetako 74 43 15era deitu.

EMAIT-ZAK

Futbola

Elgoibar 7 - Alde Zabarra 1 (2. jub.)

Elgoibar 4 - Beraun 1 (Oho. jub.)

Haundi 0 - Oberena 1

Sigmako Pilota Txapelketa

Ansola/Zubizarreta 22 - AgirreñeialUnai 8

Karral/Katei 22 - Lendinez/Osoro 21

Ofaso/Lazarobaster 21 - Esnaola/Egaña 22

GaratelGerrikabeitia 17 - Olabe/Angel 22

Eskubaloia

Arrate 18 - Tecnomeca Elg. 19 (Jub. mut.)

Pagoaga Elg. 24 - Amenabar Zarautz 12 (Jub. nes.)

Saskibaloia

Hautzarc 49 - Elgoibar 57

Areto futbola

Elgoibar 6 - Pascual 1 (Auton.)

Elgoibar 6 - Gubi Zarautz 6 (1. maila)

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 31

12:00 Urki - Lagun Arte (Erreg.)

18:00 Haundi - Fraga

Sigmako Pilota Txapelketa

Asteartea, 3

19:30 Beraza/Ioidi - Esnaola/Egaña

Armaxio/Agirregomezkorta -

Lotolakazarobeitia

Osteguna, 5

19:30 Karmei/Balzola - Ansola/Zubizarreta

Karral/Katei - Ibarluzea/Iparagirre

Pala Txapelketa, Ikastolan

Larunbata, 31

16:00 Rodolfo Rico/Elkoro -

Urigoitia/De la Mata

17:00 Fernando Rico/Araneg -

Bergua/Gurrubaga

Thinindulartzita, Plaza - Mintxeta

Larunbata, 31

10:00 Kadeteen Lasterketa

Gorka Garatek brontzezko domina lortu du Euskadiko Judo Txapelketan

Egoitz Mora Mehllara joan da Espainiako Judo Txapelketan parte hartzeko

Ibai Klubeko Gorka Garatek, Euskadiko Txapelketan brontzezko domina lortu du 19 urtez azpiko mailan. 19 urteko gazte honek lehen aldiz hartu du parte maila honetan, beraz, ondo me-rezitakoa izan da brontzezko domina. Espainiako txapelketan jokatu duen ala ez ikusteko dago oraindik.

Egoitz Mora, Espainiako txapelketan

Ziurra dena da, Egoitz Morak Melillan izango den Espainiako Txapelketan parte hartuko duela. 17 urtez azpiko kategorian arituko da 14 urteko judoka hau. Txapelketa hilaren 29an hasi zen eta sailkatuz gero, bihar, hilak 31, fi-

nala jokatu du. Domina lortuz gero, Ibai Kirol Elkarteko bigarren ikaslea izango litzateke domina lortzen duena, aurretik Anjel Albizuk eskuratu baitzuen brontzezkoa 17 urterekin.

Gimnasia erritmikoko finalean

Bestetik, Ibai Klubeko Xabi Gonziilez eta Esther Idiak ez Euskadiko Judo Txapelketan izango dira ekainaren 1 ean, Zumarragan. Estherrek judoan ezezik, gimnasia erritmikoan ere Gipuzkoako txapelketarako sailka-tzea lortu du Carmen Lendinezekin batera. Finala, bihar, hilak 31, izango da goizeko 10etan Hernanin.



Gorka Garatek 19 urte ditu eta dagoeneko domina ugari irabazi ditu.

43 ehiza Ulakurrek hartu zuten parte Albitxuriko zelaian jokatu zen Trinitate Sariko lehiaketan

Unai Oñederrak irabazi zuen herritarrentzako Usakume Tiraketan

Trinitate Sariko ehiza txakurren lehiaketan inoiz baino txakur gehiago aurkeztu ziren. 43 txakur guztira, britainiar arraza eta kontinentalarren artean banatuta. Albitxuriko zelaian jokatu zen La Unidn elkarteak antolatutako ehiza txakurren lehiaketa. Lehen sailean, britainiar arrazakoen atalean, 34 txakur aritu ziren lehiatzen. Irabazlea Santiago Bernardo izan zen, setter ingeles arrazako "Lur" txakur-rarekin. Atal honetan lehiaketako elgoibartar bakarrak hartu zuen parte: F.J. Mancebok "Zar" izeneko setter ingelesarekin. Kontinental arrazako sailean, Paniagua gaztearen "Kati" izeneko Braco alemaniarra sailkatu zen lehendabiziko postuan. Britainiar ataleko bigarren eta hirugarren postuak bai eta kontinental ataleko bi-



Goiko argazkian, F.J. Mancebo elgoibartarra eta Lur. Eskumako argazkian, Patxi Arriola britainiar eta kontinental arrazako irabazleekin.

garren postua ere, Jon Mujikaren hiru txakurrek irabazi zuten.

Usakume tiraketa

Igande goiz eta arratsaldean, Trinitateetako I. Usakume Saria izan zen Albitxurin. Goizeko elgoibartarren txa-

pelketan Unai Ofiederra erraz nagusitu zen. Zazpi usakume bota zituen. Arratsaldeko probintziako tiraketan, berriz, lehen elgoibartarra, Iñaki Mancisidor izan zen. Sailkapen orokorrean bosgarren lekuan sailkatu zen eta Unai Ofiederra seigarrenean.



Tanborradak, artisautza azoka eta Golden Apple Quartet, Trinitateetako azpimarragarritna

Eguraldi, giro eta umore ezin hobean burutu dira aurtengo Trinitate jaiak. Zapatu goiza ehiztariena izan zen. Albitxurin La Unioinek antolatutako ehiza txakurren Trinitate Saria jokatu zen. Hurrek ere izan zuten non dibertitu Plaza Handian jarritako parke ederrarekin. Arratsaldean xake partiduak izan ziren Kultur Etxean eta gauean Tanborradak hartu zituen kaleak.

Gaueko 1 letan abiatu ziren tanborrero, sukaldari eta Bandako musikariak kaleetan behera. Herriko kale nagusietatik pasatu ondoren, goizaldeko ordu batak aldera Plazan elkartu ziren ehundaka herritarren aurrean, Tatiago, Polka, Iriarena eta beste batzuek jotzeko. Azken pieza Txomin Mujikak egindako "Beti Elgoibar" izan zen. Tanborradako antolatzaileek plaka bat eman zioten Txomini ikuslegoaren txaloen artean.

Igande goizean berriz entzun ziren tanbor eta harrika hotsak. Oraingoan Inazio Bereziartua musikeskolako haurrak izan ziren soldadu eta sukaldariak. Gazteen Bandak eta karroza ikusgarri batek lagunduta, ikusgarria izan

zen musikeskolako tanborradaren kalejira.

Golden Apple Quartet

Egunean zehar artisautza feriarengatik inguruan jendetza bildu zen. Herriko 8 artisau eta kanpoko beste 21ek hartu zuten parte. Albitxurin goizez eta arratsaldez, pitxoi tiraketa izan zen. Arratsaldeko 8etan, berriz, Golden Apple Quartet laukoteak kontzertu bikaina eman zuen Herriko Antzokian. 150 bat lagun joan ziren kontzertura, eguraldi onarengatik edo, espero zitekeena baino gutxiago. Jaiaren aurrekontu osoa 3 milioi ingurukoa izan da. 800.000 pta. tanborradak antolatzeko **izan da**; 600.000 pta. artisautza feriarako eta gainontzekoa beste ekintzak egiteko.



Goian Txomin Mujikari egin zitzaion omenaldia eta Tanborradako frantses soldaduen kuadrila. Behean Inazio Bereziartua musikeskolako tanborrada eta karroza. Nagusiak larunbat gauean irten ziren eta haurrak igande goizean.



Artisautza azokan ikus zitezkeen elgoibartarren lanen artean, Eskuz tailerrekoak ere bazeuden.

INTERESEKO

OSASUNA

Anbuletageia:

Larrialdiak	461111
Txanda hartzeko	743354
Planning-a	742950
Alkoholiko Anomneak	740385
DYA (anbulantzia)	464622
Gurutze Gorria	743864
Mendaroko Ospitalea	756264
Odol Emailak	743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	740442
PESA (Eibar)	902 10 12 10
Taxi geltokia	740898

UDALA

Euskara Zerbitzua ..	744366
Udal Kirol Patronatua	744415
Kultura Zerbitzua	742158
Mendaroko Udala	756100
Ongizate zerbitzua	741008
Udaletxea	741050
Udaltzaingoa	741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra ..	741626
Kiroldegia	744415
Kontsumo Bulegoa ..	743088
Liburutegia	743525
Musika Eskola	742145
Mintxeta	744315
Parrokia	740842
Postetxea	741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza ..	740296
Zaharren Biltokia ..	740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola	74 21 41
Herri Eskola	74 08 79
I.M.H.	74 41 32
Herri Institutua	
Arreiturre	74 02 67
Ezenarro (Meka) ..	74 44 80
Ikastola	74 44 41
L.H.I.	74 44 80
Pilar Ikastetxea	74 13 31

KONIUNIKABIDEAK

BARREN	74 41 12
El Diario Vasco	74 40 73
El Correo Español ..	74 10 82
Egin	10 84 21
Zazpiki Irratia	74 34 74

30
ostirala

18:00 JOLASAK

HAURREKIN

Plaza Handian

Laguntzailea: Zuhaitz A. T.

Antolatzailea: Talde Antimilitarista

22:15 ZINEA

"Dante's Peak"

22:30 KAFE USAINEAN

Partehartzaileak: Ane Zubia, Alberto Iriondo, Susana Markano, Leonor Gimenez, Vanessa Gonzalez, Unai Alonso, Kristina Etxeberria eta Iñaki Odriozola.

Kultur Etxeko sotoan

Antolatzailea: Elgoibarko

Izarra

31
larunbata

10:00 IGERIKETA

JAIALDIA

Kiroldegian

10:00 GURASOEN

EGUNA

Pilar ikastetxean

23:00 KONTZERTUA

Taldea: "Fundiziyue" eta "Arawak"

Madalako parkean

Antolatzailea: Talde

Antimilitarista

igandea

9:30 ARANTZAZURA

ERROMESALDIA

Irteera Sigmako zubian

9:30 FINALISTA

EGUNA SAN PEDRON

16:30

TXOTXONGILOAK

Lana: "Pinotxo 2000"

Herriko Antzokian

18:30 DANTZALDIA

GELATXOREKIN

Plaza Handian

19:30-22:15 ZINEA

"Dante's Peak"

Astelehena, 2

22:15 ZINEA

"Dante's Peak"

2
astelehena

22:15 ZINEA

"Dante's Peak"

5
osteguna

19:30 MUSIKESKOLA-ko IKASLEEN DANTZA SAIOA

Herriko Antzokian

Antolatzailea: Musika eta Dantza Fundazioa

20:00 HITZALDIA

Gaia: "San Bartolome eliza XVIII. mendeko Euskal artean"

Hizlaria: Edorta Kortadi Parrokian

ostirala

10:00-11:00-12:00

ELIZAKO OBREN

ERAKUSTALDI

GIDATUA

16:00-16:45-17:30

ELIZAKO OBREN

ERAKUSTALDI

GIDATUA

19:00 HERRI

ESKOLAKOEN

JAIALDIA

Herriko Antzokian

22:30 ANTZERKIA

Taldea: "La peralimonera"

Antzezlaria:

"Quo no vadis"

Herriko Antzokian

11
NE

Zuzendaria: Roger Donaldson
Antzezlarak: Pierce Brosnan, Linda Hamilton.a

Dante's Peak

Dante's peak izeneko herrixka batean sumendi batek erupzio bat izango duela iragartzen du aditu batek. Inork ez dio kasu handirik egingo, herrixka horretako alkatesak izan ezik. Erupzioa gertatzen denean, kaos-a nagusitzen da. Alkatesaren seme-alabak, sumendiaren inguruan bizi den amonaren bila joaten dira. Egoeraz jabetuta, mutikoen ama eta sumendietan aditua dena harantz abiatzen dira.

| | BERRERREZZI

- - 111 111 -

||| IIMEZ 111 |

• **Elizaren inaugurazioa ekainaren 8an**

Elgoibarko San Bartoknne Parrokiako Elkarteak elizaren berre-raikuntzaren lehen eta bigarren faseko lanen inaugurazioa egingo du datorren ekainaren 8an, igandea. Goizeko 11:30etan Eukaristia ospatuko da Jose Maria Setien gotzainaren gidaritzapean. Mezaren ostean luntxa izango da Biar-Dana elkartearen. Inaugurazio eguna bitartean bainbat ekintza egingo dira Elizan. Ekainaren 5ean, osteguna, Edorta Kortadi Deustuko Unibertsitateko irakasle eta arte kritikariak, "San Bartolome eliza XVIII. mendeko Euskal Artean" gaiaren inguruan berba egingo du. Hitzaldia Parrokian izango da arratsaldeko 8etan. Ekainaren 6an eta 7an, ostirala eta larunbata, obren erakustaldi gidatuak egingo dira goizeko 10ak, Ilak eta I2etan, eta arratsaldean, 4etan, Sak laurden gutxitan eta 5:30etan.

U111.1111A1

FARMAZIAK

Egunez Gaez

- 31 Etxeberria* Escala
- 1 Yudego* Escala
- 2 Etxeberria Etxeberria
- 3 Yudego Escala
- 4 Bidasolo Bidasolo
- 5 Yudego Yudego
- 6 Yudego Yudego

Escala: Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 75 16 38

* Eguerdiko 2ak arte

OKINDEGIA

1 igandea Doña Mercedes

• **Guraso Eguna Pilar ikastetxean**

Pilar ikastetxeko gurasoek euren eguna ospatuko dute bihar, hilak 31, egun osoan zehar. Goizean jokoak, tarten aurkezpena eta fubito partidua izango dira. Eguerdian bazkaria, eta arratsaldean, pilota txapelketaren sari banaketa, mus etab. Iluntzean afaria egongo da eta ondoren diskoteka.

• **Herri Eskolako en Jaialdia**

Gaur, hilak 30, arratsaldeko 7etan hasita, Herri Eskolako haurrek ikasturte amaierako jaialdia egingo dute Herrkoi Antzokian. Bi eta hiru urteko haurretatik hasita, 6. mailara bitarteko ikasleek bartuko dute parte. Bi-hiru urtekoek kanta saioa eskainiko dute. Lau urtekoek dantzak eta kantak. Lehen mailakoek "Xagutxo kaskarina" izeneko lana taularatuko dute eta 2. eta 3. mailekoek "Hamelingo txistularia" antzezlan. Laugarren mailakoek txisteak, dantzak eta ingelesez abestuko dute eta bosgarren eta seigarren mailakoek bertsoak, olerkiak, dantzak, txisteak eta txirula joko dute.

• **Txirindulari lasterketa**

Bihar, hilak 31, Elgoibarko Lagun Taldeak antolatuta, kadete mailako txirindulari lasterketa izango da. Goizeko 10etan Plaza Handitik irtengo dira eta heilmuga Mintxetan kokatuko da. Ibi.lbidea 60 km.koa da.

• **Finalista Eguna San Pedron**

Morkaiko Mendizale Elkarteak Finalista Eguna ospatuko du San Pedron igandean, ekainak 1. Goizeko 9etan Udal Txistulari Taldeak goiz-eresia eskainiko du kaleetan zehar. 9:30etan nahi duen guztiak Morkaikora mendi irteeran parte hartzeko aukera izango du. Morkaikotik San Pedrora jaitsi ondoren, 10:30etan meza hasiko da San Pedroko basilizan. Eguerdian Haritz Dantzari taldeak, Udal Txistulariek lagunduta, sokadantza eskainiko dute Modesto Mujika zenaren omenez. Segidan domina banaketari ekingo zaio. Bost ataletan sailkatuta, 82 elgoibartarrei ernango zaie domina bana. Aipagarria da aurten 40.000 metroko sailean mendizale harkarra dagoela, Juan Carlos Etxeberria, hain zuzen. Dornina banaketaren ostean bazkaria izango da San Pedroko jatetxean eta arratsaldean II. Morkiako Bolo Txapelketa eta haurrentzako karaokea. Egunduan zehar trikitilariak alaituko dute giroa eta arratsaldean haurrentzako jolasak egongo dira Zuhaitz Astialdi Taldearen eskutik.



• **"Pinotxo 2000" haurrentzako txotxongilo saioa**

Ekainaren leian, igandea, Gorakada antzerki taldeak haurrei zuzendutako txotxongilo saioa taularatuko du Herriko Antzokian arratsaldeko 4:30etan. "Pinotxo 2000" da lanaren izenburua, Carlo Collodi idazle italiarraren Pinotxo pertsonaia ezagunean oinarritua. 2000. urtearen atarian, Pinotxoren pertsonaiak adierazten duen guztiak indarrean dirauela erakusten du antzezlan honek.

Salerosketak

◆SALDI.J.

- Aukera interesgarria: Benecci Superligerak eskopeta saltzen da, Oso ondo zainduta dago. Bi urteko garantia eta estrak. tr 74 03 92 (Dani)
- Peugeot SRD salgai. Merkea. Honda 500 VFR motorra (berria). a 907 84 40 54 (Unai)
- Poliesterezko Yamaha itsasuntzia salgai. 4 zaldiko motorra. 4,50ko luzera eta 1,50ko manga. Tr 19 13 07
- + Opel Kadet diesela saltzen dut. 150.000 pta, Tel: fr 74 23 67
- Ambra 186 ordenagailua. DX2 modelua, 66 MHz, disko gogorra 243 mega, RAM 8 mega, 14 pulgadatako amba monitorea koloretan, teklatura eta arratoia 50.(.000 pta.n saltzen dut. zr 12 71 92 (M. Eugenia)
- Mendaroko Irrintzi liburudenda traspasatzen dut. s 75 61 53
- 1"40x2'00 m-ko sofa-oheta salgai. Estreinatua gabe. Prezio erdian. tr 19 25 91 (Javier)

Etxebizilzak

- Torreviejan apartamentua alokatzen dut. (Ekaina eta iraila). 1T 74 24 50
- Bungalow-a alokatzen dut Santa Polan udan, uztailean izan ezik. fr 74 12 13 (Carmen, gauez)
- Jakan apartamentu bat alokatzen da. (Membrilleras-en) a 74 20 31
- Benidorm-en apartamentua alogeran. Hondartzako lehen ilaran. zr 74 20 31
- 3 logelako eta amohlatua dagoen etxe bat alokatu nahi da, irailetik aurrera. fr 72 20 03 (Ainhua. Asteburueta deitu)
- Pisua salgai Pedro Mugaruzan. a 74 04 56 (Maria)
- 1 Etxea saltzen dut Santa Ana 10-4n. a 756234
- Maiatzetik irailera hitartean etxea alokatzen dut Jakan. z 74 15 22
- Donostian (Paseo Rondan) pisu hat alokatzeko daukat. a 74 18 34
- Ekainetik aurrera apartamentu hat alokatzen da Benidormen Levanteko hondartzako lehen ilaran. Garbigailua, TB, igerilekua, parking-a. a 74 20 31
- Udan, uztailean izan ezik, Santa Polan (Alicante) hungalow-a alogeran fr 74 12 13 Carmen (Gauez)

Lana

◆ESKAINITZA+

- Sukaldaria behar da. 70 06 02 / 906 15 74 03 (Guillermo)

◆ESKAERA

- Neska hat eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Esperientziaduna eta euskararekin. zr 19 21 28 (Asun, asteburueta)
- Neska eskaintzen da umeak zaindu edo bestelako lanak egiteko. ir 74 18 68
- Ileapaintzaile titulodun neska eskaintzen da umeak zaintzeko. zr 74 22 91 (Cristina)
- Neska hatek haurrak eta etxeko lanak egiteko lituzke. Euskalduna eta esperientziarekin. fr 74 31 88 (Amaia. Goizez)
- 18 urteko neska sukaldako lanak edo garhitasuna egiteko. Tr 74 36 38 (Arantza)
- Umeak zainduko nituzke egun osoan edo orduka. Neska euskalduna esperientziarekin. fr 74 34 99 (Eulali)
- Klinika eta psikiatria auxiliarrak gaixoak edo pertsona nagusiak zainduko lituzke. a 74 05 45
- Klinika laguntzaileak gaixoak edo pertsona nagusiak zainduko tuzke. fr 74 03 98
- Neska gazte batek haurrak du edo propaganda banatuko luke. 4T 74 04 56,
- Gaixoak zaindu, etxea zaindu, enpapelatu lanak, sukaldako etab, egiteko prest nago. Carmen Jorquera. tr 75 62 57

Garajeak

- Urasandin garaje itxia saltzen da. a 74 08 63
- Garaje itxia salgai Arregitorren. 17 75 51 77
- Marradun garajea alokatzen da San Roken. Karakate elkarte azpian. s 74 18 37
- Urasandin garajea dut alokatzeko. Marraduna. Tr 74 31 07
- Garajea salgai Juan Mugerza kalean. te 74 12 04 (20:00-22:04)
- Garaje itxi bat saltzen da Arregitorren. Tr 74 12 53
- Garaje hat salgai Leku-Ederreko 4. solairuan. (9etatik 13etara) fr 74 32 04
- Garaje itxi hat saltzen dut Arregitorren. 13 74 34 10

Bestelakoak

- San Frantzisko iturrian ume baten txaketa urdin bat topatu nuen asteazkenean. Udaltzaingora eramandut.
- Gonak josten dira beste hat neurriera ekarrira. fr 74 21 40
- Caritas-ek garbigailua behar du eta salarako annairu bat. fr 74 15 09/74 12 57
- Urrezko belarritako bat topatu nuen ostiral gauean Urasandin. Galiziarren jaietan. er 74 22 08 (M.Dolores)
- Elgoibarko folk taldeak entsaiatzeko lokal bat alokatuko luke. tr 74 14 62 (Gauez deitu. Alvaro)
- Husky siberiano eme bat ematen dut. Zuri-beltza, 8 hilabete ditu, hakuna guztiak jarrita eta papeleoa egina. Tr 987- 91 57 17 (Asier)
- Eskiak (33 zenbakia) eta bas-toialt oparitzen ditut. 74 34 24 (Mila)
- WG autoko giltzak topatu nituen Arnoaten eta Udaltzaingora eramandut.

Partikularrak

- Frantses klaseak ematen ditut. Ikastaro trinkoa uztailean. zr 74 04 59
- LOGSE batxilgoko marrazketa eta arkitektura eta injinerutza has-teko oinarriko marrazketa emango ditut uztailean. zr 74 03 74
- Euskarazko eta Lehen Hezkuntzako partikularrak ematen dira. Talde txikiak. tr 74 09 72 Garikoitz
- Matematika, kontabilitatea, praktika administratiboak, kosteen kontabilitatea eta abarri buruzko klase partikularrak ematen ditut. Maila guztiak eta talde mugatuak. Esperientzia dut. ir 74 21 65 Javi

Agurrak

- Zorionak Ruben Mancebore gaur, hilak 30, 10 urte betetzen dituelako. Lehengusina eta familia-koen partez.
- Zorionak Juantxori hilaren 31n urteak beteko dituelako. Nerea, Maider, Ruben eta familia guztia-ren partez.
- Zorionak Leire Apellanizi hilaren 3an urteak beteko dituelako. Melany B-ren partez.
- ◆ Ekaitz Insaustiri zorionak maiatzaren 31n 9 urte beteko dituelako. Lagunen partez.

Agurrak



- Gaur 7 urte betetzen dituen Ainara Gandiagari zorionak amama eta izebaren partez.



- Zorionak Ion Belaustegiri hilaren 28an 6 urte bete zituelako. Aita, ama eta Amaia-aren partez.



- Ekainaren lehen 12 urte beteko dituen loritzi zorionak eta egun on hat pasa dezala. Musu haundi bat aiatat eta amak.



- Gaur 8 urte heste dituen Mireia Jauregiri zorionak familiaren partez.



- Zorionak eta belarritik 10 tirakada Saioa De Pedrori asteazkenean urteak bete zituelako, Ikastolako 4. mailako-koen partez.

Zorionak, baita ere, bere familia-koen partez.



- Zorionak Ainhoa Larrairtagari azokako talde-aren partez gaur, hilak 16, urteak bete dituelako.
- Zorionak Sara Gurrutxagari maiatzaren 26an urteak bete zituelako. Sara eta Eiderren partez. Baita Irati, Nerea, Ane, Itxaso, Potxoli eta Potxoren partez.
- Zorionak Elena Garateri maiatzaren 28an urteak bete zituelako, familiaren partez.
- Zorionak M. Mar Marquezi gaur, hilak 30, 14 urte bete dituelako, bere koadrilako eta "V"ren partez. Ondo pasa?
- Zorionak Alberto Zelaiari maiatzaren 27an urteak bete zituelako. Bere lehengusinarekin partez.

zer
oparitu
ezkonglei



Leizabe



Jifrzyzhttub 



Crolls garbigailua



LAU Gortinak eta
alfonbrak



ARTEGI

LAU

Gortinak eta
alfonbrak



ostarku

PROFESIONALAK


Ez itxaron gehiago!
Enkarga ezazu
dagoeneko
zure
ezkontza
erreportaia.



ARGAZKI-ERREPORTAIK
KALITATE DIGITALA DUTEN
BIDEO ERREPORTAIK

Santa ana, 5 - ELGOIBAR - Tel. (943) 74 06 46

LASA JATETXEA



*Ezkontzaren ueca
sekula aiaz ez
dezagun eta zure
bizitzako oroigarri*

909~94,vda clarliz4

dism .2414

faIewiek,ipt

~~ h3411,40.

laktlzi4, clakte~pt

q,~3.

MaiialbInean

iltai'pt

itedzam, Zalek

duem, phy,eNza.



*LASA jatetxean
badakigu zer den hori.*

Erdi aroko "Ozaeta"

jauregiaren

maisutasunaren

babespean igaroko

dituzgu zure bizitzako

unerik alaienak.

**Ozaeta Jauregia Tel. (943) 76 10 55 Faxa (943) 76 20 29
BERGARA**